

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Ostirala, 2011ko abenduaren 2a. VIII. urtea. 2.318. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)



Pilota arloko erakundeekin batera, Villabona eta Tolosako udalek ere omenaldian parte hartuko dute. ITZEA URKIZU

## Jose Inazio Elolaren omenez pilota jaialdia antolatu dute

Zesta puntaren alde egin zuen guztia eskertzeko profesionalen partidekin osatu dute egitasmoa, Beotibarren, hilaren 6an

Omenaldiaren antolatzaileek Jose Inazio Elola zenaren gizatasuna azpimarratu nahi izan dute, bere kirol lorpenekin batera 02

## 250 dantzari txiki elkartuko dira igandean, Alegiako kaleetan

Sutarri Dantza Taldeak antolatu du Dantzari Txikien Eguna eta bertakoez gain, beste zortzi herritakoak bilduko dira 05

## Zizurkilgo I. Jostailuen Trukerako Azoka hastear

Gaur eta bihar jostailu, joko eta ipuinak trukatzeko aukera egongo da kultur etxeko areto nagusian 06

## Leitzako alkatearen aurkako auzia, artxibatuta

«Terrorismoa goratzea» egozten zion Fiskaltzak 05

## Durangon, euskal kulturgintzaren ekoizpenik berriena

Etzi hasiko da 46. Euskal Liburu eta Disko Azoka; eskualdekoen lan ugari izango dira 07



Atzo egin zuten merkatariek kanpainaren aurkezpena. I. GARCIA

## Gabonetako kanpainari ekin dio Tolosa & Co elkarteak

Herria girotzeko musika eta argia jarriko dute gaurtik 03

ESTETIKA ETA KOSMETIKA ZENTROA  
KONTSULTA MEDIKU-ESTETIKOA

# Maitte

Leitza kalea z/g • Tolosa • 943 67 09 30

## Mikropigmentazioaren PROMOZIOA

2011ko abenduaren 20a arte

- Bekainak — % 20eko deskontua
- Ezpainak — % 20eko deskontua
- Begiak — % 20eko deskontua

Bi saiorekin hirugarrengoa doan





Omenaldiaren aurkezpena ere Beotibar Frontoian izan zen. I. URKIZU

## Jose Inazio Elola omenduko dute, zesta puntaren alde egin zuen lanagatik

Abenduaren 6an, 16:30ean hasiko da ekitaldia Beotibarren, eta sarrerek 5 euroko prezioa izango dute

### Itzea Urkizu

Pasa den urriaren 5ean zendu zen Jose Inazio Elola. Zesta punta jokalaririk profesionala izandakoa, nazioarte mailan goren-gorenean aritu zen pilotan. Hala ere, zuen gizatasunagatik egingo diote, datorren abenduaren 6an, omenaldia.

Tolosako Beotibar Zesta Punta Elkarteaz gain, omenaldian Tolosako Udalak, Villabonako Udalak, Jai Alive enpresak, Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak eta Euskadiko Pilota Federakundeak ere parte hartuko dute. Hain zuzen ere, erakunde hauetako ordezkariak egin zuten agerraldia.

Arratsaldeko 16:30ak inguruan hasiko da ekitaldia. Beotibar Zesta Punta Eskolako haurrek, kinie-

la modalitatean saioa egingo dute. Jarraian, 17:00etan hasita, profesional mailako bi partida izango dira. Lehenengo norgehiagokan, Garcia eta Minvielle, Treku eta Alliez Iaren aurka lehiatuko dira. Bigarren partida, berriz, Egiguren II-Konpa bikoteak jokatuko du, Olharan-Hernandezen aurka. Sarrerek 5 euroko prezioa izango dute, eta dirua «omenaldiaren gastuak aurrera atera ahal izateko» erabiliko dute. Aipatzekoa da, gainera, ETBko kamerekin partidak grabatuko dituztela, eta egun berean eskainiko dutela emanaldia, ETB SATen.

### Gizatasunari omenaldia

Hain zuzen ere, bi partiden artean omenduko dute Elola. «Beotibar Zesta Punta Eskola sortu izana zozor diogu, eta kirol ordezkari moduan ere lorpen handiak izan zituen, baina batez ere, zesta puntaren alde egin duen guztiagatik merezi du omenaldia», azaldu du Beotibar ZPEko ordezkari Xabier Telleriak.

Zesta punta eskolako kide guz-

ties gain, erakundeetako ordezkariak ere bertan izango dira, eta oroigarri banaketa bat egingo dute, Elola gogora ekarri ondoren. Antolatzaileek, gainera, ezustekoren bat ere izango dela azaldu dute.

Jai Alive enpresako Iñaki Egigurenek, entrenatzailea izan zuen Jose Inazio Elola. Bere garairako gizon aurreratua zela nabarmendu du, eta prestakuntza fisikorako nahiz teknikoki, metodo berritzaileak erabiltzen zituela. Ikasleei, gainera, «oso balore» onak transmititzen zizkiela azpimarratu du: «modu berezia zuen ikasleok tratatzeko, eta esamoldeak erabiltzen zituen partidetan nola aritu behar genuen azaltzeko». Asteartean, bere enpresako pilotariak jokatu dituzte partidak guztiak, eta aipatzekoa da, pilotariak doanik etorriko direla omenaldira.

Tolosako Udaleko Pello Etxabek, bere aldetik, Elola «erreferente» izan zela eta, udalak omenaldian parte hartzea ezinbestekotzat jo du, «merezi zuelako».

Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioko Patxi Jauregik ere, bere gizatasuna azpimarratu zuen: «Duela 36 urte ezagutu nuen, eta bigarren bizitza bat zuen familiak gain, frontoian». Jauregik, gainera, Elolaren heriotza bera ere frontoiari lotua izan zela gogora ekarri du: «Ameriketako lagun bati bere jaioterria zen Villabonako frontoia erakusten ari zela hil zen, hain zuzen bere jaiotetxearen alboan. Zer diren bizitzaren nahikeriak!».

Horrela beraz, asteartean Beotibarera bertaratzeko deia luzatu dute guztiak.

## Unai Arroyo Europako kross txapelketan ariko da

Korrikalari tolosarra bigarren aldiz izango da nazioarteko mailan; duela bi urte ere aritu zen

### I. Urkizu

Datorren abenduaren 11n, Esloveniako Velenje herrian ospatuko dute, Europako kross txapelketa. Unai Arroyo korrikalari tolosarra, proban Espainiako selekzioarekin parte hartzeko aukeratu dute.

Aurrendenboraldi ona egin du Arroyok, izan ere, Tolosako San Esteban auzoko krossa irabazteaz gain, *Lasarte Oriabai* krossean ere garaipena eskuratu zuen.

Esloveniara joateko, berriz, Atapuercako eta Soriako (Espainia) nazioarteko krossetan lan



Unai Arroyo korrikalaria. I. GARCIA

onekin lehiari ari baitzen. Hala ere, bi norgehiagoketan oso lan ona burutu zuen Unai Arroyok, eta Esloveniara joango diren sei korrikalarietako bat izateko lortu zuen.

Aipatzekoa da, Europako kross txapelketan parte hartuko duen korrikalari euskaldun bakarra dela. Dena den, ez da Arroyok kirolari internazional moduan txapelketa batean parte hartuko duen lehen aldia izango; duela bi urte, gazte mailako Europako txapelketan, brontzezko garaikurra eskuratu baitzuen 3.000 metro-tako proban.

Eslovenian, garaikurrik lortzea zaila izango du Arroyok, maila handiko korrikalarietako lehiari ariko baita. Hala ere, sei sailkatuen artean egotea oso garrantzitsutzat jo du Tolosa C.F. atletismo taldeak, eta lehiak gozatzea eta ahalik eta probarik onena egingea izango du helburu, Arroyok.

## Europako kross txapelketan ariko den euskaldun bakarra da Unai Arroyo

## Gazte mailako brontzezko garaikurra lortu zuen, orain dela bi urte

ona egitea zuen baldintza bakarra; izan ere, Espainiako atletismo federazioko Luis Miguel Landak aritu zen, bi probak ikusten.

Hasiera batean, Europako txapelketan parte hartzea lorpen zailtzat ikusi zuen Arroyo tolosarra, Espainiako espezialistarik

## ↓ Kirol aktibitatea Usabal kiroldegian

### SASKIBALOI

**10:00.** Eskolarteko maila. Mutilak, 3 partida 3 zatitan, goiko kantuan.

**11:00.** Eskolarteko maila. Mutilak, 3 partida 3 zatitan, goiko kantuan.

### ESKUBALOI

**16:00.** Gizonezkoen kadete mailako Euskal Liga: Tolosa-Ereintza. Goiko kantuan.

**18:00.** Gizonezkoen junior mailako Euskal Liga: Tolosa-Ereintza. Goiko kantuan.

**Igandea, 12:00.** Gizonezkoen senior maila. Tolosa-Ereintza.

### FUTBOLA

**09:00.** Emakumezkoen infantil maila: Tolosa-Hernani.

**10:30.** Gizonezkoen ohorezko infantil maila: Tolosa-Bergara.

**12:00.** Gizonezkoen infantil maila: Tolosa-Hernani.

**16:00.** Gizonezkoen preferente maila: Tolosa-Munibe.

**17:30.** Gizonezkoen ohorezko jubenil maila: Tolosa-Aloña Mendi.

### ARETOFUTBOLA

**16:00.** Gizonezkoen Euskal Liga: Tolargi-Kukuia. Beheko kantuan.

**18:00.** Gizonezkoen nazional maila: Laskorain-Egintza.

### MAHAI TENISA

**11:00.** Oargi-Fortuna mahai teniseko gelan.

**12:00.** Oargi-Gasteiz.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# Erakundeei konpromiso eske

## Euskarazko hedabide ez publikoak

**B**ederatzi hilabete badira euskarazko hedabide ez publikoak agerraldi publikoa eta kanpaina bateratua egin genituela, hiru helburu nagusirekin

1. Sektorearen estrategikotasuna eta beharra azpimarratzea. Komunikazioaren eta hizkuntza normalizazioaren ikuspegitik ez ezik, ekonomia ikuspegitik ere estrategikoa eta garrantzia handikoa den sektore bati buruz ari gara hitz egiten.

2. Erakunde publikoei sektorearekiko konpromiso handiago eskatzen zitzaien, publizitate-inbertsio, bestelako inbertsio

eta laguntza handiagoak, gaurtik bertatik hasita.

3. Horretaz gain, sektoreak egoeraren analisia egin eta analisi horretatik abiatuta ildo nagusiak erakundeekin lantzen hasteko konpromisoa hartu zuen.

2012. urtea ate-joka dugu, eta erakundeetatik sektoreari begira jasotzen ari garen mezuak kezagarriak dira, ikaratzeko modukoak.

1. 2012rako aurrekontu proposamenean jasota daudenak betetzen badira, Nafarroako Gobernuak euskarazko hedabideentzako zituen diru laguntzak ezerezean dira, 2012ko aurrekontuetatik erabat desagertuko da hedabideetan euskara sustatzeko diru partida. Gainera, 2011ko bigarren epealdiko laguntzak desagertzeko arriskua ere handia da.

2. Eusko Jaurlaritzak aurkez-

tutako aurrekontuak onartzen badira, erakunde horrek aurten baino 400.000 euro gutxiago bideratuko ditu 2012an hedabideen diru laguntzetara. Urteetan, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu orokorrak goraka joan direnean, euskalgintzara eta euskarazko hedabideetara bideratutako diru sailak ez dira handitu; orain, aurrekontuetan estutasunak sortu direnean, ez dago gupidarik: lehendik estu dabilen sektore bati are kalte handiagoa egiteko aukera zabalduko da.

3. Gipuzkoako Foru Aldundiak 2011ko diru sailari eustea aurreikusi du —aurreko bi urtetan asko jaitsi da diru sail hori, eta ez du handituko—. Bizkaiko Foru Aldundia da 2012rako bere aurrekontuetan diru saila handitzea aurreikusi duen bakarra —47.500 euro gehiago, %12ko igoera—.

4. Eta zer esanik ez Iparraldeari buruz, non euskaldun hiztunen galera bizkorra (hizkuntza politika publiko baztertzalearen ondorioz) anbizioz gabeko hizkuntza politika batekin paraleloan doan. Enpresa pribatuek euskarazko hedabide berriak sortzen dituzten bitartean, laguntza publikoak oraindik geldialdi berean mantentzen dira eta, aldi berean, botere publiko

**Ezin dugu isilik geratu ikusten dugunean euskarazko hedabideen sektoreak ez duela erakunde publikoen 2012ko aurrekontuetan behar eta merezi duen trataera jasoko**

gehienek ez dituzte kontuan hartzen euskarazko hedabideak beren publizitate kanpaina ordainduetan.

Jakitun gara sektorearen etorkizuna gure lanaren baitan dagoela nagusiki. Guk geuk ere aztertu behar ditugula gure indargune eta ahuldadeak, sektorean elkarrekin jardunda errazagoa izango zaigula garai zail honi aurre egitea. Zeregin horretan ari gara hilabete hauetan eta laster batean gure hausnarketan instituzioetako arduradunekin partekatuta ahal izango dugu. Baina argi dugu aurrera egiteko ezinbestekoa dugula erakunde publikoen laguntza handiagoa, eta hori ari gara aldarrikatzen une honetan.

Gaur egungo erakunde publikoen dinamikak ez du asko laguntzen bide horretan, eta ezin dugu isilik geratu ikusten dugunean euskarazko hedabideen sektoreak ez duela erakunde publikoen 2012ko aurrekontu proposamenean behar eta merezi duen trataera jasoko, meze denen begietara sektore ezinbestekoa eta estrategikoa izan arren. Horregatik, erakundeei publikoki eskatzen diegu gaitaren garrantzia kontuan hartzeko eta aurrekontuak ahalik eta gehien egokitzeko, partidak handituz.

## Gabonetako kanpainari hasiera emango diote merkatariek

Txuleta Festa dela eta, abenduaren 6an, asteartean, 55 bat komertzioak ateari irekitzea erabaki dute

**Imanol Garcia** Tolosa

Tolosa & Co Tolosako merkatarien elkarteak, gaur ekingo dio Gabonetako kanpainari, eta urtarilaren 10a bitarte luzatuko da. Aurtengo berrikuntza, abenduaren 6an, asteartean, komertzioak irekitzea erabaki dutela izan da. Txuleta festa dela eta, egoki ikusi dute, eta guztira 50-55 bat komertzio izango dira ateari zabalduko dituztenak. Azterketa bat egin ostean, eta udalarekin adostuta, hartu dute erabakia.

Gabonak ate joka datozela eta, gaur argiak pizteaz gain, musikaz girotuko dute herrira. Urtarrilaren 4a bitartean, hemezortzi puntutan jarriko dute musika, 18:30etik 20:00etara.

Tolosa & Co elkarteak argiak jartzea lortu dutela azpimarratu du, «ez nahiko genituzkeen guztiak baina, bai alde berrian eta baita Alde Zaharrean ere argiak



Aduriz, Mantilla, Tolosa eta Artola aurkezpenean. I.GARCIA

### Gaur 19:30ean Eguberrietako argiak piztuko dituzte Gaztelako atean

➔ Gabonak gainean ditugu, eta hori iragartzen duten argiak gaur piztuko dituzte. 19:30ean, Trianguloan dagoen Gaztelako atetik jarriko dute Eguberrietako argiteria martxan.

Bertan, Gipuzkoar Merkataritzako Enpresari Sariak jaso berri dituzten, Roberto Ruiz (Fronton jatetxea) eta Anate Iturralde (Aralar kirolak) izango dira. Bertan izango dira baita ere, Musika Eskolako akordeolariak ere.

jarriko dira». Merkatarri guztiak, pako loreak jarriko dituzte beraien komertzioak berdin atontzeko. Eta elkartetik, merkatarri guztiak abenduaren 24ean artzain-andrez janztera animatu nahi dituzte.

Abenduaren 17an, larunbatean, Azoka Berezia izango da Tolosan, eta azokari jarraipena emateko, 17:30ean, Trianguloa plazan magia ikuskizuna jarri dute.

Bestalde, elkarteko Visa Txartela erabiltzen dutenek, egun ezberdinetan %5eko deskontuak izango dituzte. Urtean zehar egiten duten moduan, puntuak ematen jarraituko dute txartelarekin erostean, eta herriko Arriaran gasolindegian ere deskontua izango da.

### Bidaia eta afarien zozketak

Tolosako merkatarien elkarteak, bertako komertzioetan erosketak egiten dituztenen artean bidaia bat zozketatuko du. 2.000 euroko balioa izango du bidaia, eta zozketa urtarilaren 10ean egingo dute.

Bestetik, erosleen artean 40 afari zozketatuko dituzte. Afari hauek, izen handia duten jatetxetan izango dira.

## Hilaren 17an ospatuko dute Gaztetxearen urteurreneko eguna

**E. Maiz** Alegia

Alegiako Gazte Asanbladak hilaren 17an, larunbatean, ospatuko du Gaztetxearen urteurrenena. Aurten urteurreneko egitaraua egun batera mugatu dute.

Gazte Asanbladak babarrun jatea prestatuko du, eta txartelak jada betiko lekuetan jarri dituzte salgai. Txartelak erosteko azken eguna hilaren 13a, asteartea, izango da. Gauean berriz, herriko taldea den Manillares Iturriagaren kontzertua izango da Gaztetxean.

## Iragarki laburrak

### SALGAI

■ **Etxe adosatua.** Tolosan etxe adosatua salgai: eguzkitsua, lau gela, bi bainugela, komuna, egongela-jangela handia, sukaldea, bi autorentzako garaieja, txokoa, lorategia eta trastelekua. Interesatuek, deitu 678 267657 telefono zenbakira.

**Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean I** >

Frankismoak eta trantsizioak Tolosaldean eta Leitzaldean eragindakoak biltzen dituen liburua izango da aurki kalean. HITZAK argitaratuko du Jon Mintegiagak eta Joxemi Saizarrek idatzitako 'Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean' liburua, '1936ko gerra oroitzapenak' lanaren jarraipena dena. Gaur hasi eta abenduaren 16a bitarte liburuaren nondik-norakoa ezagutu ahal izango duzu, irakurle; gaurkoan sarrera irakurri ahal izango duzu, eta abenduaren 7an, 9an, 14an eta 16an ere liburuaren pasarte nagusien berri izango duzu.

# Gertuko bizipenen zertzeladak

## Erredakzioa

Tolosaldeko eta Leitzaldeko frankismo eta trantsizio aroko bizipenak jasotzea helburu zuen proiektua errealitate bat da jadanik. Behin hilabeteetan zehar luzatu diren lanak amaituta, inprimaketa makineta liburu itxura hartzen ari da eta abendu erdialderako argia ikusteko prest egongo da. Aurkezpen publiko batetan, proiektua aurrera ateratzen lagundu diguten guztiei esker ona adieraziko zaie eta liburuaren nondik norakoak azalduko dira.

Egitasmoa ez da ezerezetik sortzen. Alderantziz, gauzatutako beste lan baten jarraipen naturala da honakoa. 2008an, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK 1936ko gerrako oroitzapenak liburua argitaratu zuen. Bertan, Mikel Errazkinek burututako ikerketa lan zientifiko eta zehatzak datu ikaragarriak eskaini zituzten; Joxemi Saizarrek, berriz, datuak humanizatu egin zituen, gerrako zuzeneko protagonistei egindako elkarrizketen bidez.

Abiapuntua finkatua zegoen beraz eta haren gainean ondu da lan berria. Joxemi Saizarrek elkarrizketen pisua hartu du berriro ere eta Jon Mintegiaga *Mindek*, kontakizunarena. Martxelo Ota mendik hitzaurrea idatzi du, garaia eta proiektuaren nondik norakoak kokatuz. Emaitza, erabat irakurterraza eta arina den liburu bat izan da, 260 orrialderen bueltan dabilena.

## Irizpidea

1936an Francisco Franco jenerala zuzendutako matxinada militarrik ondorio latzak utzi zituen Euskal Herrian nahiz Espainiar

Estatu osoan. Sarraskiak milioi bat hildako eragin zituen behintzat eta indar politiko aurrerakoi eta abertzaleak jazarriak eta debekaturik geratu ziren, haien hondarrak erbestean antolatuz.


Gure eskualdean, politikari eta kultur gile nabarmenak erailak edo erbestera behartuak izan ziren. Eskualdean geratu zirenak gosea eta zapalketa ezagutu zuten. Frankistek argi adierazi zuten bezala, garaileak eta garaituak egon ziren.

Alde horretatik, liburu berria ez da neutroa izango eta garaituak izan zirenen ikuspuntura letroratu dago. Ondorioak herri-tarren gehiengoak jasan zituelarik, ezin zuten beste modu batera izan.

Postura horretan baina, jarraera anitzak biltzeko saiakera egin da. Frankismoak, denboran aurrera zihoa heinean batez ere, oposizio zabala eta ugaria ezagutu zuen. Mundu mailako korrante guztiak bere isla izan zuten eskualdean, eta ondorioz gure iraultzaile bati jarraitu zioten, beste batzuk pragmatikoagoak azaldu ziren; batzuk abertzaletasun tradizionalari atxiki zitzaizkion, beste batzuk joera independentistak eduki sozial sakonekin uztartzen saiatu ziren; batzuk erresistentzia armatuaren alde egin zuten, beste batzuk masa borroka hutsaren alde aritu ziren. Guztien errealitatea azaldu eta ikuspuntu zabala eskaintzea izan da irizpidea.

## Protagonistak

Kontakizunak, 1936ko gerra ostetik 1980ko hamarkada hasiera arte jazotako gertakizunak ditu



hizpide, eta beraz, protagonistetako asko bizirik daude oraindik. Eta bizirik ez ezik memoria fresko baten jabe dira gainera. Horrek asko erraztu du egin beharreko lana.

Guztira, elkarrizketatuak 40 bat lagun izan dira, garaiko bizitza politiko-sozial-kulturalean adierazgarriak izandakoak denak. Horietatik, 16 elkarrizketa, bere osotasunean liburuan argitaratuak izango dira. Gainontze-

koen esanak kontakizuneko pasarteak osatzeko erabili dira.

Protagonistak baina, 40 lagun horietaz haratago doaz eta gertakizunak pertsonen izen abizenekin lotzeko saiakera etengabea izan da. Izan ere, eskualdeetako kontuak jasotzen dituen liburua izanik, gertutasuna eta errealismoa emateak garrantzi berezia hartu du. Pasarte ezagun askok ustekabeko lagunak izan zituzten protagonista edo pertsonai eza-

gun batzuk ustekabeko pasarteak bizi izan zituzten.

Kontutan hartzeko da, bestalde, garaiko testuingurua. Maiz, gertakizun ugari klandestinitate giro batean eman ziren eta zenbaitetan jazoera haiek betirako ahaztuak geratu dira, inork eta inon jasoak izan ez zirelako. Bestetan, protagonistak berak, pasarte batzuk ezkutuan gordetzea erabaki du zuhurtziaz, eta jarrera hori erabat errespetatua izan da.

## Memoria berreskuratzen

«Izan zirelako gara eta garelako izango dira». Esaera zaharrak ederki biltzen du berekin bizitzako bilakaeraren funtsa. Iraganaren gainean eraikitzen da etorkizuna, eta orain garenaren gainean eraikiko da biharko eguna. Frankismoaren aro ilunean giza talde eta norbanako ugari hartutako konpromiso eta arriskuek haren ondorengo aldia justuagoa eta demokratikoagoa izaten lagundu zuten.

Gaurko begietatik garaia harilkatzea kosta egiten da eta horretarako beharrezkoa da memoria kolektiboaren berreskuratzea. Egun, nabaria da iragana aztertu eta gertatutakoak jasotzeko dagoen kezka. Euskal Herrian, lan horretan jardunean dabiltzan antolakunde eta elkarte prestatuak ugaltu egin dira azkenaldian, eta pixkanaka, ikerketa lan mardulak argia ikusten ari dira.

Zentzu horretan, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK asmo xumeagoak ditu baliabide mugatuegoekin batera, eta eskualdeko biztanleei, gertuko bizipenen zertzelada nagusiak azaltzearekin, helburuak ondo betetzat ematen ditu.

## EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA



**Abenduaren 3an** taloak jaten ospatuko dugu Euskararen Nazioarteko Eguna. **17:00etatik 20:00etara Katea Etxea Gaztelekuan. Etorri taloak egiten ikastera eta jatera!** Nahi duen guztiak parte hartu ahal izango du: haurrak, gazteak zein helduak.

Antolatzaile eta laguntzaileak: Katea Etxea Gaztelekua, Villabonako Udaleko Euskara eta Gazteria Arloak, Euskal Herrian Euskaraz, Jubilatuen Elkarte eta Amezketako Gazte Talu Egileak.

## Amasa-Villabonako Udala



Euskara Zerbitzua: 943 69 35 01 • euskara@villabona.net  
Udala: 943 69 21 00 • www.villabona.net



Sutarri Dantza Taldeak antolatzen du Dantzari Txiki Eguna. HITZA

## Alegiako kaleak girotuko dituzte dantzari txiek

250 dantzari inguru elkartuko dira guztira; egunari hasiera 10:00etan emango zaio eskolako jolastokian

**Eneritz Maiz** Alegia

Igandean, hilaren 4ean, Alegian Dantzari Txikien eguna ospatuko dute. Alegiako Sutarri Dantza Taldeak antolatzen du, udalaren laguntzarekin. Altzo, Andoain, Anoeta, Irura, Lizartza, Tolosa,

Urnieta eta Amasa-Villabona herrietako dantzariak izango dira Alegiakoez gain. 250 dantzari inguru izango dira.

10:00etan eskolako jolaslekuan elkartuko dira dantzari guztiak. Jarraian, 10:30ean, kalejira egingo dute Larraitz auzoan zehar. Bertako plazan, herri bakoitzeko talde batek dantza bana eskainiko du.

Ondoren, herriko frontoira gerturatuko dira, eta bertan hamai-ketakoa emango diete. Behin indarrak hartuta, Kale Behera jo-

ango dira kalejiran. Bertan herri bakoitzak beste dantza bana dantzatuko du.

Goizari bukaera emateko, herriko plazan elkartuko dira dantzari guztiak, eta herri bakoitzak beste dantza bana erakutsiko du. Plazan, hasieran, eta dantzari txiki guztiak batera agurra dantzatuko dute. Eta bukaeran, fandangoa eta arin arina dantzatuko dituzte.

Igandean eguraldi txarra egingo balu, pilotalekuan izango da festa guztia.

## Asteartero elkartzen dira Zazpi Astoren Gainean bertso eskolakoak

**E. Maiz** Alegia

Alegiako Zazpi Astoren Gainean bertso eskolak atea zabalik ditu edonorentzat. Asteartetan hasi dira elkartzen Intxurre Elkartean, 20:30ean. Eskola irekita dago, lagunartean bertsoak, bertsoetan eta bertsoekin ikasi nahi duen jende guztiarentzat. Animatzen den edonor harremanetan jarri daiteke edo bertso eskola egunean bertara azaldu.

Bertsozale asko mugitzen da batera eta bestera Gpuntuako saio-etera joateko. Horien artean, Zazpi Astoren Gainean bertso eskolako kideak daude. Jardunaz gozatzear gain, bertan gertatua baliatzen dute asteroko bilgunean jaialdiari beste bueltaxo bat emateko. Bertsoaldiak komentatu, aztertu eta sortzen diren eztabaidez aritzen dira astero egiten duten eskola saioan.

## Urtarrilaren 7ko manifestaziorako atxikimenduak bilduko dituzte bihar 12:00etan

**E. Maiz** Amezketza

Urtarrilaren 7an Bilbon izango den manifestaziorako jada mar-txan jarri dira amezketarrak. Euskal presoen alde zer egin dezaketen aztertzen ari dira, eta «Amezketza hustu eta Bilbo betetzeko asmotan» dabiltzala adierazi dute. Bide horretan, bihar, hilaren 3an, 12:00etan herriko eragileek eta norbanakoek euren atxikimendua emango dute. Manifestazioari eta oro har, presoen eskubideen aldarrikapenekin bat egingo dute. Bat egiteaz gain, guztiak argazki bat aterako dute.

## Leitzako alkatea eta bi herritarren aurkako auzia artxibatu egin dute

Auzitegi Nazionalak Oier Eizmendi, Lurdes Juantorena eta Saioa Iraolaren aurkako auzia itxi egin du

**Erredakzioa** Leitzza

Oier Eizmendi Leitzako alkatea, eta Lurdes Juantorena eta Saioa Iraola herritarren aurkako auzia artxibatu egin du Auzitegi Nazionalak. «Terrorismoa goratzea» egotzi nahi zien Espainiako Auzitegi Nazionalako Fiskaltzak. Pablo Ruiz epaileak, ordea, artxibatu egin du kasua ezin izan diolako delitua inori egotzi. Abuztuko San Tiburtzioetako txupinazoan gertatu zen. Inputatzeko arrazoia, alkatearen kasuan, jaietako egitarauetan euskal presoen aldeko topa antolatzeagatik; eta beste biak txupinazoan preso baten argazkia kamisetan eramateagatik eta euskal presoen aldeko mezua zabaltzeagatik izan zen.

## Gaur hasita, asteburuan ez da pilota partidarik faltako eskualdean

Bidegoian, Zizurkil, Altzo, Amezketza eta Tolosako pilotalekuetan izango dira gazteen partidak

**Erredakzioa**

Asteburu guztietan bezala pilota partidak jokatu dituzte Zizurkil, Alegia, Tolosa, Amezketza, Bidegoian eta Altzoko pilotalekuetan. Gaur 18:30ean, Zizurkilgo Intxaur pilotalekuan alebin mailako hiru partida jokatu dituzte. Ziotza taldekoak izango dira. 19:00etan Alegiakoen txanda hasiko da. Bost partida jokatu dituzte Intxurrekoek. Infantul mailako hiru partida, kadeteen mailako bat eta azkena nagusien mailakoa izango da. Azken bi partidak finalerdietakoak dira.

Larunbatean berriz, Tolosako Beotibar pilotalekuan bi partida izango dira 10:00etatik aurrera. Kasu honetan, kadete eta jubencil mailetan Aurrera-Saiazkoek jo-

katuko dute. Amezketan jubencil mailako partida bat jokatu da 12:00etan hasita. 16:00etan Bidegoian, Altzon eta Tolosan izango dira. Bidegoian bi partidak jokatu dituzte Aurrera-Saiazkoek; Altzon, lau partidak izango dira Intxurreko infantilenak; eta Tolosan alebinen partida bat jokatu da. Azken partida igandean izango da Tolosan, 11:00etan hasita. Kasu honetan zesta puntuakoa izango da.



**EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA**  
Abenduaren 3an 17:00-20:00. Katea Etxea Gaztelekuan, Etorri taloak egiten ikastera eta jaterak! Nahi duen guztiak parte hartu ahal izango du: haurrak, gazteak zein helduak.

**DANTZA ASTEA** abenduak 13-17

13, asteartea: Oinkari dantza taldearen *ARI DU DVD* berriaren aurkezpena.  
14, asteazkena: *Euskal Herriko Rock musika ikastaroa*, 15, osteguna: «Arozetaren tuntu» kontzertua (txistu, perkusio eta gitarra).  
16, ostirala: *KHERAU* kontzertua. (Sarrerak Amasa Kafetegian).  
17, larunbata: 17:00etan *Santio Jaietako bideo proiektzioa*, eta 22:30ean *ARI DU ikuskizun berria* Oinkari dantza taldearen eskutik. (Sarrerak Amasa Kafetegian).

**ABENDUAK 21: LOATZU MUSIKA**

**ESKOLAREN ESKUTIK: GABONETAKO EMANALDI BEREZIA**  
Gurea antzokian, 18:00etan.

**KANTINA** Abenduak 23, 30, 31

**OINKARI Dantza Taldearen eskutik** Olaederra kiroldagiko tabernan  
23, ostirala 23:00etan hasita **KONTZERTU GAUA**  
30, ostirala gaueko 21:00etan **AFARI HERRIKOIA** 23:00etan «GURE TXOKOA OROITUZ» jaiak  
31, larunbata **KOTILLOIA** 00:30ean **SARRERA DOHAN**.

**GABONETAKO HAUR PARKEA**

Abenduaren 21, 23 eta 30 arratsaldean eta abenduaren 31 eta Urtarrilaren 5ean goizez, Tailerrak, jolasak, eskulanak, psikomotritzitate-txokoa, puzgarria, merienda...  
**PREZIOA:** 3 euro  
«Bearzana» frontoian

**ERESARGI ABESBATZA-ren GABONETAKO KONTZERTUA**  
Abenduak 23, ostirala Villabonako elizan 19:30etan

**OLENTZERO ETA MARI DOMINGI Amasa-Villabona**

Abenduak 24, larunbata 17:30ean Otsabin ongi etorria. Ondoren kalejira Erreboteko plazara.

**antzerkia**

**ABENDUAK 23, ostirala** 20:00etan eta 22:30ean **BODOLOGUAK**  
Gurea Antzokian

**ABENDUAK 27, igandea** 16:30ean **HIPO ETA TOMAX**  
PAILAZOEN

«DINBI-DANBA» HAUR ANTZERKIA

**zinea**

**BI ANAI!**  
Abenduak 3, 4, 5

**ARTHUR ETA MUNDUKO ERREGA HAURENTZAKO ZINEA**  
Abenduak 4,

**TINTIN**  
Abenduak 10, 11, 12

**MARGIN CALL**  
Azarok 19, 20, 21

**KATU BAT PARISEN HAURENTZAKO ZINEA**  
Abenduak 18,

**KIKA SUPERBRUJA HAURENTZAKO ZINEA**  
Abenduak 29,

osteguna 16:30ean

# Dirurik onartzen ez den azokan jostailuak, jokoak eta liburuak egongo dira

Zizurkilgo I. Jostailuen Trukerako Azoka gaur eta bihar egongo da zabalik, Atxulondo Kultur Etxean

Asier Imaz Zizurkil

Dirurik onartzen ez den azoka antolatatu du Zizurkilgo Udalak gaur eta bihar, Atxulondo Kultur Etxeko areto nagusian. Zizurkilgo I. Jostailuen Trukerako Azokan liburuak, jostailuak eta jokoak egongo dira. «Bizi ditugun garaia eta etxeetan pilatzen ditugun jostailu kopurua kontutan izanik», azoka berezi hau antolatzeko ideia sortu zitzaion udalari; izan ere, «bakoitzak armairuan gordeta dituen jostailuak, beste etxe batean jostailu berriak izan daitezke».

Ordutegiari dagokionez, gaur 17:00etatik 19:00etara egongo da zabalik azoka, eta bihar, 10:30etik 13:00etara.

## Azokaren funtzionamendua

Azokara eramane daitezkeen jostailuak honakoak izango dira, antolatzaileek azaldu dutenez: «Ezugarri eta adin guztietako



Jokoak, jostailuak eta ipuinak trukatzeko aukera egongo da. HITZA

haurrentzako jostailu, joko eta ipuinak».

Jostailu, joko eta ipuinen egoerak ona izan behar du, hau da, jostailuek osorik egon beharko dute, eta mekanismoak dauzkaten jostailuek funtzionatu egin beharko dute.

Azokara jostailu edo jokoren bat ekartzen duen orok, jostailu hori utzi eta beste bat hartzeko eskubidea izango du. Ekarririk jostailuaren truke txartel bat jasoko du, eta txartel horrekin beste jostailu bat hartzeko eskubidea izango du.

Haur bakoitzak, gehienez hiru

jostailu, joko edo ipuin ekartzaileke eta beste hainbeste jostailu, joko edo ipuin eraman ahal izango ditu.

Azokara ekartzen diren jostailuak bertan utzi beharko dira, eta beste jostailu bat hartzea derrigorrezkoa izango da.

Haur batek baino gehiagok jostailu berdina eraman nahi baldin badu, interesatuen artean zozketa egingo da.

Azkenik, arestian aipatu bezala, azoka honetan ez da dirurik onartuko, eta trukearen bidez egingo dira egin beharreko aldaketa guztiak.

# Jexux Mari Irazurenaren ondoren Amaia Agirrerren txanda iritsi da

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren azken finalurrekoa igandean izango da, Hernaniko Galarreta pilotalekuan

A. Imaz Amasa-Villabona

Jexux Mari Irazuk bigarren finalurrekoan lortu zuen Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren finalerako txartela. Saioa irabazi ostean, larrauldarra finalera zuzenean sailkatu zen. Igande honetan Amaia Agirrerren txanda izango da. Hirugarren eta azken

finalurrekoa Hernaniko Galarreta pilotalekuan jokatu da, etzi, 17:30ean.

Galarretan, billabonatarren ondoan bost bertsolari egongo dira, azken saiorako txartelak lortu nahian: Ainhoa Agirreazaldegia, Iñaki Apalategi, Iñigo Mantzidor *Mantzi*, Jokin Uranga eta Jon Martin.

## Finala, garesti

Finalurrekoetara hemezortzi bertsolari sailkatu ziren; horien artean eskualdekoak bi besterik ez ziren: Irazu eta Agirre.

Finalurreko fasea, hiru saiotan banatu zuten txapelketaren

antolatzaileek. Saio bakoitzeko irabazleak finalerako zuzeneko txartela lortzen zuen, eta jadanik bi saio jokatu direnez, bi bertsolari Donostiako saiorako sailkatu aurkitzen dira: Beñat Gaztelumendi eta Jexux Mari Irazu. Hirugarren zuzeneko finalista igande honetako saioa irabazten duena izango da.

Finalean, ordea, guztira zortzi bertsolarirentzat dago lekua; ondorioz, puntuen arabera hamabostetik bost sailkatuko dira. Agirre, finalurrekora 11. postuan sailkatu zen, baina oraingoan, etziko puntuak balio dutenez dena bere eskuetan gelditzen da.

## Irudia ◊ Amasa-Villabona



## TXOTXONGILOAK IKUSTERA

Villabonako Fleming ikastetxeko 3. eta 4. mailako ikasleak, Tolosara joan dira Titirijai Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiko ikuskizuna ikustera. Bertan, antzezlan zoragarria ikusteaz gain, parkean erelasteko aukera izan dute. Ikastetxetik azaldu dutenez goiz ederra pasatu zuten Tolosan. HITZA

## Aurrekontuen inguruan, herritarrekin lanean

Aurrekontu parte hartzaileen bigarren batzarra abenduaren 12an egingo dute, 19:00etan, udaletxean

Erredakzioa Anoeta

Iragan astean Anoetako udaletxean aurrekontu parte hartzaileen inguruko lehenengo batzarra egin zuten. Bertan, udal ordezkariak, herriko eragileak eta herritarrak elkartzu ziren, hain zuzen ere, 30 lagun inguru. «Lehen bileraren helburua parte hartze prozesua azaltzea eta 2011ko aurrekontuen berri ematea izan zen, 2012koak osatu aldera», udaletik azaldu dutenez.

Anoetako Udalak gaur egungo egoera zein den azaldu zuten herritarrei, eta 2012ra begira, irizpide nagusiak mahai gainean jarri zituen. Horrela, argi azaldu zuen gaur egungo sarrera arruntan eta gastuen desoreka handia dela, eta desoreka hori orekatzera jo beharra dagoela: «Desoreka handi hau, batez ere, herriko zenbait zerbitzuren kudeaketak sortzen du, hala nola, kiroldegia eta zaborraren zerbitzua.»

Aurrekontu parte hartzaileen inguruko hurrengo bilera abenduaren 12an, 19:00etan, izango da. Bertan, herriko eragile eta herritar guztien ekarpen eta proposamenak eztabaidatuko dira. Ondorioz, udalak anoetar guztiak gonbidatu ditu batzar honetan parte hartzera.



Udalak herritarrekin batzarra egin zuen azaroaren 26an. HITZA

«Itz da eta eta ez da ilko guk ez badegu nai»

-Xabier Lizardi-

TOLOSALDEKO hitza

ETA LEITZALDEKO

Abenduak 3 - Euskararen Eguna

# Etzi zabalduko ditu ateak euskal liburuen eta diskoen erakuslehorik handienak

434 lan berri aurkeztuko dituzte; Bonbereneak eta Euskal Herria Sozialistak beren postua izango dute

## Iñigo Terradillos

Dena prest dago Gerediaga elkar-teak antolatzen duen Durangoko Azokarako. Etzi irekiko dute, eta bost egunetan zehar Euskal Herriko liburugintza eta disko-gintzaren ekoizpenik berriena ezagutzeko aukera izango da. Eskualdeko egileen lanek ere lekua izango dute bertan, eta baita HITZA egunkariak ere.

46. edizio honetan, Landako gunean 434 lan berri aurkeztuko dituzte: 313 liburu, 63 disko, 23 aldizkari, 9 bideo, 15 liburu elektronikoa eta 11 bestelako argitalpen. 138 argitaletzek, diskoetzek, taldek, elkarrek eta erakundek hartuko dute parte. Stand kopuruari dagokionez, behera egin du zertxo-

bait, 9 gutxiago izango baitira, 274 guztira.

## 200 ekitaldi baino gehiago

Bestalde, hiru gune berri izango ditu aurtengo azokak. Irudienea ize-nekoan euskarazko ikus-entzuzko sorkuntza erakutsiko dute; Szenatokia euskarazko antzerki-gintza eta antzerkizaleasunaren topaleku izango da, eta Kabi@, berriz, sarean eta euskarri teknologiko berrietan euskaraz garatzen diren ekimen, proiektu eta produktuen erakuslehoia. Hiru gune hauetan, Aretoan, Haur Literatura Aretoan eta Ahotsenea delakoan, guztira, 200 ekitaldi baino gehiago izango dira.

Gerediaga elkar-teak urtero ematen duen Argizaiola saria Iñaki Beobide donostiarrak jasoko du. Beobidek Herri Gogoa diskoetxea sortu zuen 1967an eta, 1981. urtera arte, euskal musika talde eta kantari askoren diskoak argitaratu zituen. Bestalde, aurtengo kultura gonbidatua galego izango da.

## Bonbereneak eta Euskal Herria Sozialistak, postua

Tolosaldeko eta Leitzaldeko bi eragilek izango dute postua Durangoko aurtengo Azokan, Bonbereneak eta Euskal Herria Sozialistak.

Bonbereneakoak Barrenkalen izango dira, 11. zenbakian, eta euren zigiluarekin argitaratu duten materiala erakutsiko dute. Txarangak Pirritx, Porrotx eta Mari-mototekin batera egin duen diskoaz gain, beste hauek ere argitaratu dituzte aurtengo: *Hiltzera goaz* (Fiachras), *Sputnik 11*, *Matxura*, *Lehertarazi edifizioak* (Napoka Iria), *Martin Larralde* (Eneko Barberenea eta Mikel Ocejja).

Euskal Herria Sozialistako ki-deak Artekaleko 68an izango dira. Aldizkari aleak eta liburuak emango dituzte. James Connolly marxista irlandarraren *Klase zapalduak Irlandaren historian* da aurtengo argitaratu duten liburua. Horrez gain, eman dituzten hitzaldien bilduma DVDan ere jarriko dute eskura.



Euskaltzalez beteko da azoka etzitik datorren ostegunera bitarte. HITZA

## ↓ Eskualdeko aurtengo argitalpenak

### ALDIZKARIAK

- **'Erlea'**. Bernardo Atxaga idazle eta euskaltzain oso asteasuara da aldizkariaren zuzendaria. Pamiela eta Euskaltzaindiaren hiruhilabetekariaren bosgarren alea izango da azokan.
- **'Euskal Herria Sozialista'**. Aldizkari marxistaren ale berriaz gain, urte honetako ale guztiak ere eramango dituzte.

### DISKOAK

- **Lain**. *Leihoak* (Elkar).
- **Pirritx, Porrotx eta Marimotots eta Bonberenea eta Bonberenea Txaranga**. *Pirritx, Porrotx eta Mari Motots & Bonberenea Txaranga* (Bonberenea Ekintzak).
- **Sputnik 11**. *Sputnik 11* (Bonberenea Ekintzak).

### LIBURUAK

- **Bernardo Atxaga**. *Xola eta Ameriketako izeba* (Erein), Mikel Valverde (irudigilea).
- **Garbiñe Biurrun**. *Odio, perdón, venganza, paz* (Erein), Garbiñe Biurrun eta Joxe Arregi.

- **Iker Otermin**. *68ko maiatza* (Euskal Herria Sozialista).
- **Juan Garmendia Larrañaga**. *Agerkari etno-historikoa. Nere paperetatik* (Eusko Ikaskuntza).
- **Juan Kruz Igerabide**. *Irribarra zabaltzeko ipuinak* (Elkar), Jokin Mitxelena (irudigilea); *Txori txoraa* (Alberdania), Maite Gurrutxaga (irudigilea); *Tanta baten istorioa* (Tartalo), Lorena Martínez (irudigilea).
- **Karlos Linazasoro**. *Bat-batean, krispetak* (Alberdania), Maite Gurrutxaga (irudigilea); *Gaur orain da betiko* (Erein); *Nuvolari plaza* (Erein); *Udalbatza bahituaren kasu polita* (Elkar).

- **Maite Gurrutxaga**. *Zabaleko txorimaloa* (Elkar), Juan Luis Zabala eta Maite Gurrutxaga (irudigilea).
- **Patziku Perurena**. *Argi itzalak* (Alberdania); *Goizuetako etxeren izenak* (Pamiela), Patziku Perurena, Patxi Salaberri, Joxe Zubiri.
- **Ramon Olasagasti**. *Rita eta zilarrezko txoria eta Rita erraldoia*, Rita bildumaren 7. eta 6. aleak (Elkar). Mikel Valverde egilea, Olasagasti itzultzailea.

## Bosgarren urtez HITZA, Durangon

Sei eskualdeetako HITZA egunkariak eta 'Berriak' euren materiala eramango dute azokara

## I. Terradillos

Durangoko Liburu eta Disko Azokan izango da, beste urte batez, HITZA egunkaria. Hain zuzen ere, sei eskualdeetako HITZEK izango dute presentzia azokan. Eurekin

batera, *Berria* egunkaria ere izango da. Bige egunkariak Goienkaleko 63 eta 64 zenbakietan izango dute jendaurrean agertzeko lekua.

Postu honetara gerturatzen diren euskaltzaleek 2012ko mahai egutegia eskuratu ahaliko dute, eta aurtengo Gabonetan kantuan egiteko kantutxo liburuak ere eskura izango dute. Horrez gain, HITZA egunkariak urtean zehar argitaratu duten material berezia ere eramango dute azokara nahi duen ororen eskura jartzeko. *Berria* egunkariari dagokionez, on-

dorengoak jarriko ditu erakusmahaietan salgai: *Mantangorriren eskulan tailerra*, 2012ko agenda, *Murgil historiaren itsasoan* joko, 2012ko egutegia eta euskarazko lehen sukaldaritza bilduma.

*Berria* eta *Hitza* egunkarietako harpide egiteko aukera ere izango da, abantaila ugariarekin, gainera. HITZAREN kasuan, Mahalako produktuez osaturiko saski eder bat jasoko du harpidedun egiten den orok, eta *Berriaren* kasuan, ogia egiteko makina.

## Hilberriak

## ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



## MAITE ELIZEGI ARRILLAGA



Agur, ama

Etxekoak



80°  
70°

GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	LAINTUTA
BEROENA	9°
HOTZENA	6°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.M.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendariak:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza.** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info.  
**Webgunea:** tolosalde.hitza.info

**Zuzendariordeak:** Imanol Garcia. **Kudeatzaileak:** Jon Mujika.  
**Publizitateak:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitzalde:** 687 410 118. leitzalde@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak  
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaldeko  
beste 77 eragile

**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:**

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Hernialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

**Agenda**

**ANTZERKIA**

■ **Tolosa.** Titirijai jaialdiaren barruan, gaur, 18:00etan, kultur etxean, Txotxongilo Taldearen *Elurrezko panpina*; 18:30ean, Euskal Herria plazan, Alauda Teatrotan *Puppet Circus*; 22:30ean, Topic zentroan, Os-karren *Viajeros al tren*. Bihar, 13:00etan, Euskal Herria plazan, Alauda Teatrotan *Puppet Circus*; 17:00etan, kultur etxean, La Gaviota taldearen *Pascual Patroicio y sus muñecos*; 18:30ean, Topic zentroan, Pro Rodopiren *Basura por ciruelas*;



Titirijain, atzo, Sufoel taldearen *No tengas miedo* obraren une bat. I. GARCIA

plazan, Alauda Teatrotan *Puppet Circus* obraren emanaldia; 17:00etan, Leidor antzokian, La Gotera de la Azotearen *Viento pequeño*; 18:00etan, Topic zentroan, Sufoel taldearen *No tengas miedo*.

**DEIALDIAK**

■ **Lizartza.** Kultur astearen barruan, gaur 20:30ean, kantu poteoa plazatik hasita eta amaieran, gaztaina jatea Gaztetxean. Bihar, 12:00etan, frontenis txapelketaren finala; 17:30ean, *Musika tresnen fabrika*, haurrentzat antzezlan kultur gunean; 22:00etan, *Gitarra eta ahots-fantasia euskal kanten inguruko* kontzertua kultur gunean;

24:00etan, Margot taldearen kontzertua Gaztetxean. Etzi, 19:00etan, *Isplua* helduentzako antzerkia kultur gunean.

**ZINEMA**

■ **Tolosa.** Igandean, hilak 4, 19:30ean eta 22:00etan, *Bianai*. Astelehenean, 19:30ean, *Bianai*, eta 22:30ean, *Mientras duermes*.  
■ **Villabona.** Bihar, 19:30ean eta 22:15ean, *Bianai*. Igandean, 16:30ean, *Arthur eta munduengerra*; 19:30ean, *Bianai*. Astelehenean, 21:30ean, *Bianai*.  
■ **Leitza.** Gaur, 22:30ean, eta igandean, 19:30ean, *Urte berri on, amona*.

**Agurrak**



**Zorionak Naroa!**

Astelehenean 3 urte. Muxu potoloak Rodriguez familiaren partetik.



**Urte askoan!**

**Maria Ansa Peña (Anoeta).** Bihar sei urte. Sei muxu pottolo, sei besarkada handi, familiaren partetik.

19:30ean, Leidor antzokian, Espejo Negroen *El increíble viaje*. Etzi, 13:00etan, Euskal Herria

**Farmaziak**

**GAUR**

■ **Tolosa.** Olarreaga, I. Korreo, 2. 943 67 01 28.  
■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

**ETZI**

■ **Tolosa.** Azpiroz, A. Amaro auzunea, 9. 943 67 51 18.

■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

**BIHAR**

■ **Ibarra.** Lejeune, L. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.

**ETZIDAMU**

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalaretta, 1. 943 67 38 49.  
■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarreren, 2. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**Tolosa&Co**

Tolosako merkatariorik abenduaren 6an, asteartean, **dendak irekita izango ditugu!**

**PLAN PREVER PEUGEOT 2.600€ ZURE KOTXE ZAHARRARENGATIK**

P-5008

TOLOSA MOTOR, S.A. PEUGEOT KONTZESIONARIOA  
San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA • Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938 • tolosa@tolosa.redpeugeot.com

Zatoz **hitza**ren egoitzara gure **arropa berriak probatzera**

**Helduentzako Jertsea: 29,5 €**

Kolorea: beltza  
Gizon eta emakumeen modeloak  
Neurriak:  
- Gizonak: S-M-L-XL-XXL  
- Emakumeak: S-M-L-XL

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza**

Araba Etorbidea, 5 behea (Tolosa) • Tel: 943-65 56 95

**INKERNU** jantzigintza

- Diseinuak
- Eraldaketak
- Konponketak
- Artzain-andre jantziak
- Inauterietako mozorroak

Gernikako Arbola 1 behea • TOLOSA • 943 24 43 64 • elvinkernu@gmail.com